

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Bihotz tratua

LANDAREZALEAK landare berri bat sortzetik, gero landare horien tratanteek etekina kentzen dioten arteko tartea ezagutzeko, munduko lore eta landareen hiriburua den Herbehereetako Aalsmeerri buruz aurreko artikulua idazten ari nintzen egunean, iloba pareta eta hauen lagun bat kontzertu punki, gaur egungo punki, batera eramango ote nituen eskean eta, neronek ere, aspaldiko partez, gisa honetako gozatu baten premia banuelakoan, hor abiatu gara laurok Eibarko Amaña aldera.

Tokia bera da Amaña punkia! Porlanari emandako aldapa tzarretan ez da landareentzat zirrikitu askorik. Kalegurutzet batean oholtza eta jendetza. Bihotzez porlan-estali. Bihotzak kiriotsu *Bihotzaren aginduak* kantuan. "... betetzeko baitira, bihotzaren aginduak... ez ditzala buruak hil bihotzaren aginduak...". Bihotzeko dudak Surfin Kaos kantuan... Bihotza han eta burua Aalsmeerren, pulamentu eskasa... Han dioten eran, ganora eskasa!

Aalsmeer munduko lore eta landare tratuaren bihotza, mundu osoan ekoizten den landare eta

loreen herena bertatik igarotzen da. Herbehereetatik saltzen den idi-bihotz (*Tulipa sp.*) ekoizpen osoa bertatik doa, adibidez. Eta ez da bihotz gutxi, urtero laurhunen bat milioi ale. Idi-bihotzak emango dituzten erraboilak edo aietak ere bertatik esportatzen dira, urtean pare bat mila milioi inguru...

Asia Txikia du jatorri idi-bihotzak, Kurdistan osoa eta Kazakhstan aldeko Pamir, Tien Shan eta Hindu Kush mendiak aipatzen dituzte. Anatoliara zabaldua, *Tulipa gesneriana* originala hartu eta Istanbulgo baratzeetan espezie berriak sortzeari lotu zitzaizkion turkoak. Ehunka espezie egin eta harro erakusten omen zituzten. Ez da alferrik Turkiako eta Irango ikur. Handik Europaratzeko bi bide aipatzen dira. Bata XI-XII. mendeetan, gure alde honetan ibili ziren mairuek, Toledoko Ibn Massalek, agidanean, Abu-l-Jayr botanikariak bere *Umda* obran dioenez. Bestea, geroxeago, XVI.lean bateko eta besteko enbaxadoreek, tratua ez beste zer egin handirik gabe izaten diren horiek, Alemaniara, Austriara, Parisera eta tratanteen habia Herbehereetara... Handik mundura!



JAKOBA ERREKONDO

Baratzeak

Behin baino gehiagotan irakurriko zenuen orriotan, euskaldunok "baratze" hitza erabili beharko genukeela "lorategi" baldres ddottorearen orde. Gure baratzean barazkiez gain, apaingarri, sendabelar, lokarrietarako gai, sukaldarako belar, errituetarako landare, mitiko, fruta-arbola... denetatik da. Honexegatik behingoz gure estiloa landu nahi izatera, hauek denak eraman behar ditugu berdegune guztietara, jendea bizi garen inguru guztietara.

Hauxe egina dute Zumaiamiko etxe tarte honetan, baratze dotorea. Jolasgune, belaze, eta tartean barazkiak. Ez edonola gainera, izenak ikasteko, ezagutzeko, ukitzeko, edonor inguratzeko eran... Bejondeizula zumaiamiar horri.

Babeslea: Alkartasuna



ALKARTASUNA
Usurbilgo Baseritarren Kooperatiba

EGOITZAZ GAIN, ZERBITZU BERRIAK ETA GASOLINDEGIA

KOKAPEN BERRIA USURBILEN

Atallu Industrialdea, 6 - 26. lokala

T 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com

